

BESTE ARROIL BATZUK

NAFARROAN UGARIAK DIRA ARROILAK, BATEZ ERE PIRINIO AURREKO IBARRETAN. ARGITALPEN HONETAN HIZPIDE NAGUSI IZAN DITUGUNEZ GAIN, ESQUALDE BEREAN DITUGU UGARRONGOA, BENASAKOA, AIZPURGIKOA, SANTA KOLONBAKOA ETA BURGIKOA, NATURGUNE BABESTU GISA SAILKATURIK GEHIENAK.

JARDUNBIDE EGOKIAK BISITARIARENDAKO:

- Eraman ezazu zaborra gertuen dauden edukiontzietara (aparkalekura).
- Erabil itzazu aparkalekutarako gaitu diren eremuak eta errespetatu itzazu pistetan sartzeko mugak.
- Errespetatu ezazu fauna, landaredia eta ingurune osoa, oro har.
- Ez itzatzu hegaziak asaldatu zure oihu eta zaratekin.
- Ez ezazu ikusgai utzi ibilgailuetan ezer baliotsurik.
- Harriak eror daitezke; erne ibili.
- Ezin da ez kanpatu ezta surik egin ere. Guztion hobe beharrez, ez piztu inolako surik.
- Arroilean basozainak daude. Lagun iezaiezu.

ARROILEN INTERPRETAZIO ZENTROA IRUNBERRI

Arroilen Informazio Zentroan, Iruberrri erdialdean baitago (Plaza Nagusia), eskualdeko ingurumenari eta turismoari buruzko informazio gehiago eskuratu ahalko duzu. Zentroa, gainera, turismo-bulegoa era bada, eta Hegaztiei buruzko Informazio Puntua.

HARREMANETARAKO

- Ingurumenari buruzko Informazio eta Hezkuntzaren Atala
Telefonoa: 848 42 78 65 • Helbide elektronikoa: sian@navarra.es
- Iruberrriko Naturaren Interpretazio Zentroa
Telefonoa: 948 88 08 74
Helbide elektronikoa: cinlumbi@navarra.es
Web-orria: www.focesdenavarra.es



• Egileak: Carlos García (Cederna-Garalur). Iñaki Cortés - Mikel Madoz (TERRA). Diseinua: Javier Arbillla •



► NAFARROAKO PIRINIO AURREKO ARROILAK

ARROIL edo zintzur esaten zaio Nafarroan urek mendian sorturiko haitzarteari, ibai batek milioika urtetan arroka higatu eta gero. Nafarroako Pirinioetako eta Pirinio aurreko kareharrizko tolesduren kokaera geologikoa dela-eta, hainbat arroil sortu dira hango ibai nagusien ibilbidean (Zaraitzu, Irati, Ezka, Areta, etab.)

Arroilen sarrera eta irteerak haitz arteko pasabide estuak dira, ibaiak osorik hartzen dituen igarobide bakartuak. Morfologia hori eta arroiletako horma malkartsuak direla-eta, gizakiari mendeetan zehar ia ezinezkoa izan zaio haietan barneratzea eta, horrenbestez, aldatu gabeko natura garatu da haietan, egun balio handiko natur baliabidetzat hartzen duguna. Garai zaharretan almadiazainak, ikazkinak eta ehiztari ausarten bat edo beste baino ez ziren sartzeko gune basa haietan barrena. Gaur egun, arroil gehienak Naturgune Babestu gisa sailkatuta daude.

NATURA-ERRESERBAK

ARBAIUNGO ARROILA IRUNBERRIKO ARROILA

Nafarroako
Gobernua




Gobierno
de Navarra

Iruberrriko
Udala



Erromantzatu
Udala



▶ ARBAIUNGO ARROILA

Hain handia eta ikusgarria denez, nafar arroiletarik bikainena dugu, nahiz eta sartzeko zailena ere baden. Zaraitzu ibaiak zizelkatua da eta 6 kilometrotan zehar ia 200 metro-ko horma zut-zutak ditu ezker-eskuin. Oso handia da eta erliebe malkarrekoa eta, horren ondorioz, zenbait mikroklima ezberdin garatu dira barnean, askotariko landarediaren sorleku sasitu eta ia-ia birjina. Hortaz, espezie mediterraneak ugari daude bertan, hala nola artea, abarritza eta erkametza, eta baita inguru hezeagoetakoak diren bestelakoak ere: pagoa, ezkia eta hurritza, esaterako, eta, orobat, beste landare txiki baliotsu bezain bakan anitz, artesi eta hegietan.

Arroila babestua dago, natura-erreserba baita, eta animalia espezie ugari bizilekua da, bikain kontserbaturiko ingurua delako. Nabarmenezkoak dira, besteak beste, harrapari handiak, lekuari ospea ekarri diotenak: sai arrea, munduko koloniarik handienetako bat osatu baitu (250 bikote), hain bakana dugun ugatza, arrano beltza, sai zuria eta hontz handia, adibidez.

Aukera zenbait ditugu arroila ezagutzeko. Sarbide nagusia Usunen dago (Erromantzatua), herri horren sarreran dagoen aparkalekutik bidexka bat abiatzen delako arroilaren ibai-ahora daramana. Handik bada modua Usungo San Pedroren basilizaraino joateko, Nafarroan dokumentaturiko lehen monasterioa baita. Usungo ibilbidea 3,6 km-koa da guztira (joan-etorria). Bestetik, panoramikarik ederrera Isoko gaineko behatokitikoa da.



▶ IRUNBERRIKO ARROILA

Irunberriko udal mugapean dagoenez herriko izena hartu du. Irati ibaiak zula-turiko haitzartea da, txikia baina arras ikusgarria, eta badu gainerakoek ez duten ezaugarria: aise ibil daiteke hartan barrena, arroila osorik gurutzatzen duen bidea dagoelako, 1911tik 1955era zeharkatu zuen Irati trenbidearen ondare. Bi tunel txiki bereizten dute arroilaren barrunbea eta kanpoaldea.

Kareharrizko horma okre-gorrixkak, ehun metro ere hartzen dutenak, habitat zut horretan berezitutako hegazi ugari gordeleku dira: sai arreak, sai zuriak, belatxinga mokogorriak, bele txikiak, sorbeltzak, etab. Landareen artean abarritza-zuhaixkak dira nagusi, baita haiekin batera sortzen diren lore mediterranearrak ere. Ibaiko uretan, garbixeagoak urterik urte, barbo, amuarrain, mazkar, zarbo eta txipa franko dago eta bolada batez urrundutako biztanle bat ere itzuli zaigu azkenaldian: igaraba.

Natura-erreserba da, urtero bisitari anitz hartzen dituena. Sarbide nagusian, Irunberrietik etorrira, bada aparkalekua, ordaintzekoa, baita atsedenekua ere, iturria, komunak eta mahaiak dituena. Arroila ezagutzeko modurik ohiko eta erosoena da Irati tren zaharraren ibilbidea egitea oinez (2,6 km-ko joan-etorria, zelaia). Ibilzaleagoendako bada beste bidexka bat seinalaturik (SL-NA 113), arroila gainaldetik inguratu eta gero barnetik itzultzen dena.

Arroiletik hurbil hegazi sarraskijaleendako bazkaleku bat dago. NA-178 errepideko behatokitik ikus daiteke, Iruñetik Jakara doan A-21ko bidegurutzetik hurbil.

